

DIRU ITURRIAK

Dirua oso baliabide garrantzitsua da edozein produktu burutzeko orduan. Aplikazioaren prototipoa IOS mugikorretarako egin dugunez, hasiera batean, gaur egun sortzen diren beste aplikazio askok egiten duten bezala, Phoneblok IOS mugikorretarako eskaintzea espero dugu, eta beranduago Androiderako ere bai. Eta aplikazioa guztiz dohainik eskuratuko ahal da. Baina beste nonbaitetik lortu beharko dugu dirua proiektua aurrera eramateko eta etekina ateratzeko aplikazioari.

Kasu honetan, gure dirulaguntza denak erakunde eta udal ezberdinek eskainiko dizkigute, Eusko Jaurlaritza edo Oñatiko Udalak hurrenez hurren. Denborak aurrera egin ahalaz, eta gure proiektuak espero dugun bezalako arrakasta lortuz gero, beste erakunde batzuegandik eta udal gehiagoregandik ere dirua lortzea espero dugu, horien dirulaguntzak jasoz. Adibidez, Oñatiko udalaren laguntza jaso ondoren Arrasateko Udalarari laguntza eskatuko diogu gure aplikazioa ezagunagoa izan dezan hondoko herrietan.

Gure aplikazioa zabaltzeko, publizitate nahiko anitza eta erakargarria egingo dugu, gure proiektua ondo azaldu eta interesgarri bezala uzten duen publizitatea. Facebook, Twitter eta Instagram bezalako sare sozialetan publizitatuko gara. Marketing erakargarri bat egitea da gakoa, horrelako proiektuak amets izateari hutsi eta aplikazio famatuenetariko bat bihurtzeko, sortzen diren milaka aplikazioetatik destakatzea da gure helburua. Bezeroen arreta eskuratuz gure aplikazioak ahalik eta arrakasta handiena izan dezan.

